





ZINEMA EXPRESS LEHIAKETA



# GETX 9



URRIAK 25 - 27 | GETXO



[getxoexpress.com](http://getxoexpress.com)

## Gazteek gida berri bat dute

Udaleko Gazteria Zerbitzuak Getxoko gazteei zuzendutako gida berri bat argitaratu du. Bertan, uda-

lerriko gazte-elkarteei buruzko informazioa eta haien interesekoak izan daitezkeen zerbitzu publikoiei buruzkoa aurki daitezke. Azken atal horretan, Gazteria Zerbitzuari, Gazte Bulegoaren eskaintzari, Algortako "GauEgun" eta Romoko "GureGune" Gaztelekuetako guneei, Aholkularitza Psikologikoko eta Gizarte- eta Lan- eta Lege-orientazioko zerbitzuei, Hiri Koloniei, Gaztelonjak programari eta beste udal-zerbitzu batzuei buruzko informazioa jasotzen da.

Gida hemen kontsulta daiteke: <https://labur.eus/RbPtb>



## DiscoverEU 2024 deialdia

Hilaren 16ra arte, 12:00etan, 2006ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean jaiotako pertsonak DiscoverEU bonu bat eskuratu ahal izango dute, Europan zehar trenzuei bidaiatzeko. Erasmus+ Europako programaren

ekimena da, eta EBn edo Erasmus programari lotutako hirugarren herrialde batean bizi diren 18 urteko gazteei aukera ematen die iraupen laburreko esperientzia batez gozatzeko, banaka edo taldeka, Europan zehar bidaiatzeko.

## IV. Gazteriaren Foro Transpirenaikoa

Azaroaren 22tik 25era Gazteriaren IV. Foro Transpirenaikoa egingo da Okzitaniako Toulouse herrian. Foro horretan, Euskal Autonomia Erkidegoko 18 eta 30 urte bitarteko gazteek aukera izango dute bizi dituzten erreali-

tatei buruz eta hautematen dituzten behar eta gabeziei buruz eztabaidatzeko eta irtenbide posibleak proposatzeko. Inskripzioa zabalik dago.

Info: <https://labur.eus/1XOYM>

## BEKAK SARIAK

\* **Fulbright beka** AEBetako unibertsitateetako espainiera-irakurleentzat, 25/26 ikasturtea. 13 beka dira, 9 hilabeterako, eta 4.000 US dolarrekoko zenbatekoa dute, gehi unibertsitate bakoitzaren laguntza osagarria (ostatua, mantenua, saria, etab.), gaixotasun- eta istripu-asegurua. Eskabideak aurkezteko epea: urriaren 15era arte. Informazio gehiago: <https://labur.eus/HhEBtt> eta [Informacion@fulbright.es](mailto:Informacion@fulbright.es)

\* **XXVIII. Leioako Argazki Lehiaketa**, Leioako Udalak deitua, nahi duten guzientzat, Z/B eta kolore modalitateetan. Gaia librea da eta sariak 250 eta 400€ bitartekoak dira. Lanen banaketa: azaroaren 4ra arte. Informazio gehiago: <https://labur.eus/NbqWl>

## Romoko Gaztelekuaren programazioa

GureGune gazteleku

Urria

Hilak 4, 11, 18 eta 25, ostiralak: GAZTEXPRESS LEHIAKETA

Hilak 5, larunbata: "JAPAN WEEKEND" IRTEERA

Hilak 9, asteazkena: MAHAIK JOLASA. "DIXIT"

Hilak 18, larunbata: SUKALDARITZA. SANDWICH BEGETALA

Hilak 26, larunbata: SUKALDARITZA. NATXOAK GUAKAMOLEAREKIN

Hilak 30, asteazkena: MAHAIK JOLASA. PARTXIS

Hilak 31, osteguna: HALLOWEEN EGUNA

## Algortako Gaztelekuaren programazioa

GauEgun gazteleku

Urria

Hilak 5, larunbata: IRTEERA: JAPAN WEEKEND

Hilak 10, osteguna: TXAPELKETA: FUTBOLIN

Hilak 11, ostirala: SUKALDARITZA: CRUMBL COOKIE

Hilak 19, larunbata: ESKULANA: KAMISETAK

Hilak 20, igandea: SUKALDARITZA: ARROZ-ESNEA

Hilak 22, asteartea, 26, larunbata, eta 30, asteazkena:

ESKULANA: HALLOWEEN

Hilak 31, osteguna: FESTA: HALLOWEEN



## GetxoExpressen beste edizio bat Muxikebarrin

GetxoExpress film labur espresen jaialdiaren bederatzigarren edizioa izango da urriaren 25etik 27ra bitartean Muxikebarrin Gorrondatxe aretoan. Udalak eta Bizkaiko Foru Aldundiak babestutako lehiaketa formatu berean itzuliko da aurten ere.

Izen ematea joan den irailaren 24an ireki zen eta ohikoena da plazak egun gutxitan betetzea.

Ostiralean, hilak 25, 18:00etan, 25 talde parte-hartzaileei emango zaie gaia. Talde horiek 42 ordu izango dituzte film labur bat asmatu, grabatu eta ekoizteko. Film labur horrek ezin izango du lau minutu baino gehiago iraun, eta antolatzaileek jaialdiaren egun berean proposatutako Getxoko kanpoko bi kokaleku agertu beharko dira gutxienez.

Film laburren proiektzioa eta sari banaketa igandean, hilak 27, izango dira, 18:00etan, Muxikebarrin Arrigunaga aretoan.

Sariei dagokienez, 1.000 euro mantenduko dira film labur irabazleentzat, 800 euro biga-

ren sailkatuarentzat eta 300 euro publikoaren sariarentzat.

Urtero bezala, ikus-entzunezkoen industriako hurrengo arlotako pertsonak aukeratu dira, askotariko epaimahaia izateko helburuarekin: Jesús Choya ekoizlea; Tamara Lucarini gidolari eta zuzendaria, eta Maitane Carballo, produktore eta soinu-burua.

Lehiaketaren oinarriak <https://getxoexpress.com/#> eta helbidean eta jaialdiaren sare sozialetan kontsulta daitezke.

getxogazte URRIA > AEBNUA 2024 IKASTAROAK ETA JARDUERAK **GAZTEENTZAT** PARA JÓVENES CURSOS Y ACTIVIDADES OCTUBRE > DICIEMBRE 2024

**ETXEBIZITZA VIVIENDA**

Gazteentzat etxebizitza aukeratzeari buruzko erabakiak hartzeko behar dituzten tresnak eta informazioa.

Taller sobre la elección de vivienda para la juventud, herramientas e información que necesitan.

urte 18-30 años  
Azaroak 6 de noviembre  
17:30 - 18:30 (gaztelaniaz)  
18:45-19:45 (eusquera)  
RKE

getxogazte URRIA > AEBNUA 2024 IKASTAROAK ETA JARDUERAK **GAZTEENTZAT** PARA JÓVENES CURSOS Y ACTIVIDADES OCTUBRE > DICIEMBRE 2024

**ZEINU HIZKUNTZA LENGUA DE SIGNOS**

Zeinu hizkuntza oinarriko ikastaroa. Bertaratze-zurtagiri emango da. Titulo A1.1

Curso básico de lengua de signos. Se entregará certificado de asistencia. Título A1.1

urte 16-30 años  
Azaroaren 4tik - Abenduaren 13ra arte  
4 de noviembre al 13 de diciembre  
On-Line  
Castellano y lengua de signos

HERRI ZIBERRI JARDUERAK ACTIVIDADES

GOOGAZ PLAY

ERREALITATE BIRTUALA GJH GAKOAN REALIDAD VIRTUAL EN CLAVE ODS

URRIAK 11 - 12 11 - 12 OCTUBRE

Fadurako Areto Nagusia

GETXO

Apuntatu!

bbk e getxogazte